



**LAZKAOKO
UDALA**

**2016KO ABENDUAREN 2KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko abenduaren bian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko azaroaren 18an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Azertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 95 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, **HAMAZAZPI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO (17.352,27 €)**koa onartzea erabakitzen da.

III.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Hurrengo batzarra egiteko data ohikotik aldatu egiten da, datorren abenduaren 22an arratsaldeko 15.00etan egitea erabakitzen delarik.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkari lanetan ari naizenak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



**LAZKAOKO
UDALA**